

## PRENTSARAKO OHARRA

18/06/11

### **Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arau Proiektuak Batzarretako tramitazioagaz jarraitzen dau, 96 zuzenketa eske onetsi eta gero**

Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauak beste izapidetze bat igaro dau gaur Batzar Nagusietan, Batzarretako taldeek aurkeztutako ia 200 zuzenketa-eskeak eztabaidatu ostean. Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Batzordeak testu barria itzi dau prest, aurrerago egingo dan osoko batean onesteko, 96 zuzenketa-eske gehitu eta gero. Zuzenketa-eske horreetatik 26 Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztutakoak dira (4 ohikoak eta 22 transakzionalak); 53 EH Bildurenak; 16 Podemos Bizkaia taldearenak; eta bat Talde Mistoarena. Bidean, oposizinoak osokorako erreserbau dituan ehun zuzenketa-eske inguru geratu dira.

Batzarretako taldeei jagokenez, eta Foru Gobernuaren beharra eusten daben talde bietatik hasita, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek 6 zuzenketa-eske aurkeztu ditue; Talde Popularrak 3; EH Bilduk 188; Podemos Bizkaiak 66; eta Talde Mistoak, bere aldetik, 5 zuzenketa-eske.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek ohiko lau zuzenketa-eskeren bitartez – bi baztertu egin ditue– bultzatutako aldaketen artean honeek dagoz: Bizkaiko emakumeen partaidetzarako Kontsejua sortzea, emakumeen eta erakunde feministen partaidetzea bultzatzeko; gobernu taldean ordezkariak orekatua egotea; eta genero ikuspegia sartzea enplegu publikoaren diseinuan eta bertara sartzean, eta baita lan arloko akordioetan eta hitzarmenetan be.

Aldaketa horreei, zuzenketa-eske transakzionalen bitartez EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeakaz lortutako 22 akordioak gehitu behar jakez. Ordezkari sozialistak eta batzordekide jeltzaleak adierazo daben moduan, gaur zuzenketa-eske batzuen kontrako botoa emon daben arren, badago Batzar Nagusien Osokoa baino lehen akordioak lortzeko aukerarik.

Oposizinoko taldeei jagokenez, EH Bildu izan da aldeko eretxi gehien jaso dituana, bere zuzenketa-eskeen artetik 53 onetsi diralako. Planteetan dituan aldaketen artean honeek dagoz: Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Organoari funtzinoak emotea; interseksionalidade printzipioa sartzea; eta Bizkaiko Emakumeen Kontsejua sortzea, partaidetzarako eta alkarrizketa politikorako tresna moduan, beste batzuen artean.

Podemos Bizkaiak aurkeztu dituan zuzenketa-eskeen artean, “genero indarkeria” esamoldea kentzea azpimarratu behar da, horren ordez “indarkeria matxistea” jarriz, Foru Arau Proiektuan bertan. Horrez gain, Foru Aldundian bardintasunean behar egiten daben beharginei zuzendutako bardintasun arloko urteroko prestakuntza plana bultzatzea be onetsi da.

Talde Mistoak be Foru Gobernuan dagozan taldeen aldeko botoak lortu ditu laneko gainkarga ordezkaritza orekatua apliketako erespide baztergarri moduan hartzen eban artikulua aldatzeko.

Batzordeko eztabaidea bukatu ostean, Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arau Proiektua Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokora eroango da. Talde Mistoak izan ezik, oposizionoko ganerako talde guztiek, EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta Talde Popularrak, euren zuzenketa-eske guztiak osokorako erreserbetan dituela adierazo dabe.

NOTA DE PRENSA

12/06/18

## **El Proyecto de Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres sigue su tramitación parlamentaria tras aprobarse 96 enmiendas**

El Proyecto de Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres ha pasado hoy en las Juntas Generales un nuevo trámite parlamentario tras debatirse las casi 200 enmiendas presentadas por los grupos junteros. La Comisión de Empleo, Inserción Social e Igualdad ha dejado listo para su aprobación, en un próximo pleno, un nuevo texto con la incorporación de 96 enmiendas de las que 26 son conjuntas de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos (4 ordinarias y 22 transaccionales); 53 son de EH Bildu; 16 del grupo Podemos Bizkaia; y una del Grupo Popular. En el camino se quedan un centenar de enmiendas que han sido reservadas por la oposición para la sesión plenaria.

Por grupos junteros, y empezando por las dos formaciones que sustentan la labor del Gobierno foral, los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos habían presentado 6 enmiendas; el Grupo Popular entregó 3 enmiendas; el grupo EH Bildu, 118; el grupo Podemos Bizkaia, 66; y el Grupo Mixto, 5 enmiendas.

Entre las modificaciones impulsadas por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos a través de cuatro enmiendas ordinarias – puesto que dos han sido retiradas- está la de la Creación de un Consejo de participación de las mujeres de Bizkaia con el fin de impulsar la participación de mujeres y organizaciones feministas; la representación equilibrada del equipo de gobierno; la incorporación de la perspectiva de género en el diseño y el acceso al empleo público, además de en los acuerdos y convenios laborales.

A estos cambios hay que sumársele los 22 acuerdos alcanzados con los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia mediante enmiendas transaccionales. Tal y como han manifestado tanto el representante socialista como la apoderada nacionalista, a pesar de que hoy hayan votado en contra de algunas enmiendas existe la posibilidad de alcanzar acuerdos antes del Pleno de las Juntas Generales.

Por parte de los grupos de la oposición, EH Bildu ha sido el que más apoyos ha logrado al haber sido aceptadas 53 de sus enmiendas. Entre las modificaciones que plantea está la de incluir funciones al Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres; la integración del principio de interseccionalidad; y la creación de un Consejo de Mujeres de Bizkaia como herramienta para la participación y la interlocución política, entre otras.

Entre las enmiendas de Podemos Bizkaia destaca la eliminación de la expresión “violencia de género” sustituyéndolo por “violencia machista” dentro del propio Proyecto de Norma Foral, y el impulso de un plan de formación anual en materia de igualdad para el personal técnico en igualdad de la Diputación Foral, entre otras muchas.

Asimismo, Grupo Mixto ha logrado el apoyo de los grupos del Gobierno Foral en la enmienda en la que instaba a modificar el artículo que definía la sobrecarga de trabajo como criterio excluyente para la aplicación de una representación equilibrada.

Finalizado su debate en Comisión el Proyecto de Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres será llevado al Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia. A excepción del Grupo Mixto, tanto EH Bildu como Podemos Bizkaia y el Grupo Popular han manifestado hoy que reservan todas sus enmiendas para la sesión plenaria.